**Etxarri Aranazko Udala**
Kale Nagusia 10 (KP 31820)
udala@etxarriaranatz.eus
www.etxarriaranatz.eus
Tef. 948460004

# KULTUR, KIROL ETA JENDARTE ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN OINARRIAK 2021/2022

## BASES DE LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES A ENTIDADES CULTURALES, DEPORTIVAS Y SOCIALES (2021/2022)

### 1. Xedea

Deialdi honen xedea da Etxarri Aranazko kultura, kirol eta gizarte entitateei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea, honelako ekintza eta jarduerak sustatu eta babestearren: herrian herritarren parte hartzea bultzatzekoak, bizi kalitatea hobetzen dutenak eta kulturaren ezagutza nahiz garapena sustatzen dutenak, prestakuntzako, arte eta kulturako, gizarte eta kulturako edo kiroleko jardunen bidez.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2021ko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitarteko epean egin beharko dira.

### 2. Dirulaguntzaren xedea.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.2. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako jarduera hauek egiteko emango da dirulaguntza: prestakuntza-jarduerak eta/edo –ekimenak (arautu gabeko hezkuntza), artistiko-kulturalak eta kirol-jarduerak, baita herriko arte-ondarea babestu eta ezagutzera ematea helburu dutenak ere. Dirulaguntza jasoko duten jarduerek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Herritar guztiek esku hartu

### *1. Finalidad*

*La presente convocatoria tiene por objeto la concesión de subvenciones a entidades culturales, deportivas y sociales de Etxarri Aranatz para la realización de acciones y actividades que propicien la participación ciudadana, mejoren la calidad de vida, promuevan el conocimiento y el desarrollo artístico-cultural, deportivo y social de la localidad.*

*Las actuaciones subvencionables se desarrollarán en el plazo que va del 1 de septiembre de 2021 al 31 de agosto de 2022.*

### *2. Objeto de la subvención.-*

*De conformidad con lo establecido en el art. 23.2 LGS, se concederá subvención para las actividades y/o iniciativas formativas (educación no reglada), artístico-culturales, deportivas o de defensa y conocimiento del patrimonio artístico-cultural de la localidad que cumplan los siguientes requisitos:*

- *Que las actividades estén abiertas a toda la población y garanticen la igualdad y no discriminación por razones de sexo, raza, lengua, ideología, condiciones socioeconómicas, entre otras.*



Silvia Marañon Chasco (1, guztira 1)
Alkatea / Alcaldesa
Sinaduraren data: 08/10/2021
HASH: 6b4910a63fb5fdc554a23e1d9eb8fe3e

Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 16

dezaketenak izatea, hau da, bereizkeriarik ez egitea sexua, arraza, hizkuntza, ideologia, baldintza sozio-ekonomikoak eta abar direla eta.

- Herritarren arteko harremana eta bizikidetza, hautapen librea eta garapen pertsonala bultzatzea.

- Sormena, partaidetza, zentzu kritikoa eta erantzukizuna bultzatzea.

- Euskararen erabilera bermatzea (bereziki, jardueren eta/edo programen publizitatean eta adierazpen publikoetan).

- Bertako kultura bultzatzea.

- Udalak dituen beste laguntza lerro batzuetan sarturik ez egotea.

**3. Finantziazioa:**

Dirulaguntza horiek emateko, udal aurrekontutik honako zenbateko hauek erabiliko dira:

Kontu-saila: 3340 4820002 “Kultura, kirola eta gizarte entitateentzako dirulaguntza”.

Kopurua: 4.650,00 euro.

**4. Dirulaguntza emateko araubidea**

Dirulaguntza norgehiagokako araubidean emango da, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17. artikuluan ezarritakoarekin bat.

**5.- Deialdiaren publizitatea**

Deialdia Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da.

**6. Entitate onuradunen betebeharrak.**

Dirulaguntza hau jaso ahal izango dute jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituzten elkarteek, betiere Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren debekuetako bat urratzen ez badute. Hona baldintza horiek:

- Haien helburu soziala harremana izatea deialdiaren xedearekin.

- Irabazteko asmorik ez izatea.

*- Que fomenten la convivencia, la libre elección y el desarrollo de la personalidad.*

*- Que potencien la creatividad, la participación, el sentido crítico y la responsabilidad.*

*- Que se garanticen el uso del euskera (especialmente, en la publicidad de las actividades y/o programas y en las manifestaciones de carácter público).*

*- Que potencien la cultura autóctona.*

*- Que no estén incluidas en otras líneas de ayuda del Ayuntamiento.*

***3. Financiación.***

*Se destinarán a la concesión de estas subvenciones las siguientes cantidades del presupuesto de la Corporación:*

*Partida: 3340 4820002 “Kultura, kirola eta jendarte entiateei dirulaguntza/Subv. a ent. Culturales, deportivas y sociales.*

*Cuantía: 4.650,00 euros.*

***4. Régimen de concesión de la subvención***

*La subvención se concederá por los trámites del régimen de concurrencia competitiva, de conformidad con lo establecido en el art. 17 LFS.*

***5.- Publicidad de la convocatoria***

*La convocatoria se publicará en la página web y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.*

***6. Requisitos de las entidades beneficiarias.***

*Podrán acceder a la presente subvención, siempre que no incurran en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el art. 13 LGS, las asociaciones que cumplan las condiciones que se establecen a continuación:*

*- Que su objeto social esté relacionado con el objeto de la convocatoria.*

*- Que no tengan ánimo de lucro.*

*- Que tengan su sede social en Etxarri Aranatz.*



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 16

- Egoitza soziala Etxarri Aranatzen izatea.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea, dirulaguntza eskatzen den egunean.

Horrekin batera, finantzatu beharreko jarduera ezin izango da doakoa izan erabiltzaileentzat. Orain arautzen den dirulaguntza jaso ahal izateko, erakunde onuradunek erabiltzaileei dagokien kuota kobratu beharko diete (eta erakundeak berak zehazten duena, hala badagokio).

**7. Dirulaguntzak bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak.**

Prozeduraren instrukzioaz horretarako propio eratutako batzordea arduratuko da, eta honako kide hauek izango ditu:

- Lur Iosu Larraza Lopez, Etxarri Aranazko kultura-zinegotzia (ordezkoa: Arturo Carreño Mundiñano, kirol zinegotzia).

- Amaia Ijurra Araña, Etxarri Aranazko kultur teknikaria (ordezkoa: Udalak izendatzen duena).

- Lorena Almandoz Mutuberria, Etxarri Aranazko Udal Kontuhartzailea (ordezkoa: Udalak izendatzen duena).

- Idazkaria: Mateo Zubeldia Suso, Etxarri Aranazko Udaleko idazkaria (Ordezkoa: Maria Barkos Berruezo, Lakuntzako Udaleko idazkaria).

Deialdia alkatetzaren ebazpen bidez ebatziko da, Batzordeak proposamena egin ondoren.

**8. Eskaerak aurkeztea.**

I.- Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko epea <u>2021ko abenduaren 31an amaituko da, 14:00etan.</u>

II.- Dokumentazioa leku hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da:

- Aurrez aurre Etxarri Aranazko Udaleko Erregistroan (Nagusia 10, 31820 Etxarri Aranatz), jendaurreko ordutegian:

*- Que se hallen al corriente de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social, a la fecha de la solicitud de la subvención.*

*Unido a ello, la actividad objeto de la financiación no podrá ser gratuita para las personas usuarias. Para poder obtener la subvención que ahora se regula, será necesario que las entidades beneficiarias cobren la cuota que corresponda (y que en su caso determine la propia entidad) a las personas usuarias.*

***7. Órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento***

*La instrucción del procedimiento corresponderá a la comisión creada al efecto y formada por:*

*- Lur Iosu Larraza Lopez, Concejal de Cultura del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz (sustitución: Arturo Carreño Mundiñano, Concejal de Deporte).*

*- Amaia Ijurra Araña, Técnica de Cultura del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz (sustitución: a designar).*

*- Lorena Almandoz Mutuberria, Interventora del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz (sustitución: a designar).*

*- Mateo Zubeldia Suso, Secretario del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz (sustitución: Maria Barkos Berruezo, Secretaria del Ayuntamiento de Lakuntza).*

*La resolución de la convocatoria se hará por Resolución de Alcaldía, previa propuesta de la Comisión.*

***8. Presentación de solicitudes.-***

*I.- El plazo para presentar las solicitudes de subvención finalizará el día <u>31 de diciembre de 2021 a las 14:00 horas.</u>*

*II.- La documentación se podrá presentar en cualquiera de los siguientes lugares:*

*- Presencialmente en el Registro del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz (Nagusia 10, 31820 Etxarri Aranatz) en horario de atención al público: de 10:00 a*



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 16

10:00etatik 14 00etara.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako administrazio publikoetako erregistroetan. Interesdunak eskabidea posta arruntaren bidez aurkeztu badu, epea amaitu baino lehen, mezu elektroniko bat bidaliko dio Udalari (udala@etxarriaranatz.eus) horren berri emateko.

- Udalaren egoitza elektronikoan (http://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/info.0 ).

**9. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.-**

Interesdunek ondoren adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte, adierazitako epean eta lekuan:

- Eskabide ofiziala beteta (I. eranskina)

- Entitatearen urteko jardueren programa eta jarduera horien aurrekontu zehaztua. Proiektuak dirulaguntzaren xede diren ekintzen eta/edo jarduketen zerrenda xehakatua jasoko du, diruz lagundu daitezkeen gastuen araberakoa. Era berean, honako datu hauek jasoko ditu: aurreikusitako egutegia, jarduerak egiteko tokia, egunak eta orduak eta gutxienez deialdiaren 9. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak betetzeari buruzko aipamenak ere (II. eranskina).

- Jarduera edota ekintza konkretuan parte hartzen duten haurren zerrenda.

- Eskatzailearen NANaren fotokopia, edo entitatearen Identifikazio Fiskaleko Kodearena, pertsona juridikoa bada (ez da beharrezkoa izango aurreko deialdietan aurkeztu bada, baina, nolanahi ere, jasota utzi beharko da).

- Eskatzailea pertsona juridikoa bada, estatutuen fotokopia (ez da beharrezkoa izango aurreko deialdietan aurkeztu bada, baina, nolanahi ere, jasota utzi beharko da).

*14:00.*

*- En los registros de las Administraciones Públicas señaladas en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimietno Administrativo Común de las Administraciones Púbilcas. En el caso de haber presentado la instancia a través de Correos, el inetresado enviará un correo electrónico a la dirección udala@etxarriaranatz.eus dando cuenta de dicha situación antes de la finalización del plazo.*

*- En la sede electrónica del Ayuntamiento (https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/info.0) .*

***9. Documentación a presentar.-***

*Los interesados tendrán que presentar los documentos que se señalan a continuación en el plazo y el lugar indicados:*

*- Instancia oficial cumplimentada (Anexo I)*

*- Programa de actividades y presupuesto detallado de las mismas. El proyecto presentado incluirá una relación detallada de las actividades y/o actuaciones para las que se solicita la ayuda con arreglo a los gastos subvencionables, indicará el calendario previsto, su lugar de celebración, fechas y horarios en que se llevará a cabo, así como referencias al menos al cumplimiento de los criterios de valoración establecidos en el artículo 9 de esta convocatoria (Anexo II.*

*- Listado de las personas que participan en el taller o actividad.*

*- Fotocopia del DNI del solicitante, o del CIF de la entidad, en caso de ser persona jurídica. (No será necesario en caso de haberlo presentado en convocatorias anteriores pero, en todo caso, habrá que dejar constancia de ello).*

*- Si el solicitante es una persona jurídica, fotocopia de los Estatutos (No será necesario en caso de haberlos presentado en convocatorias anteriores*



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 16

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko aitorpena. Entitateari dirulaguntza esleitzen bazaio, gorago aipatutako inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko du, laguntza ordaindu aurretik (III. eranskina).

- Jarduera finantzatzeko lortutako edo eskatutako beste dirulaguntza batzuei buruzko aitorpena (IV. eranskina)

**10. Dokumentazioa aurkeztea eta akatsak zuzentzea**

Dokumentazioa eskuratu ondoren, batzordekideak bilduko dira hura aztertu eta 9. atalean ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Batzordeko kideek aurkeztutako dokumentazioak akatsak dituela uste badute eta/edo haren gainean zalantzak badituzte, horren berri emango zaio eskatzaileari, 5 egun balioduneko epean zuzendu, konpondu eta/edo argitu ditzan. Behin epe hori igarota errekerimendua bete ez badu, interesdunak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da, 39/2015 eta 40/2015 legeetan ezarritakoarekin bat etorriz.

**11. Baremoa.**

I.- Aurkeztutako dokumentazioak 9. atalean ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Batzordeko kideek aurkeztutako dirulaguntza eskabideak baloratuko dituzte, jarraian adierazten diren irizpideen arabera.

- Jarduerak hezkuntza eta kirol arloetan eta/edo arlo soziokulturalean gizartearen eta kulturaren arloan duen eragina eta herrian duen interesa. Parte-hartzaileen kopurua hartuko da kontuan. (% 20). (20%).

- Emakumeen eta gizonen arteko bidezko harremanak, kulturen arteko ezagutza eta harremana,

*pero, en todo caso, habrá que dejar constancia de ello).*

*- Declaración responsable de hallarse al corriente en las obligaciones tributarias y pagos a la Seguridad Social. Si la entidad resulta adjudicataria de la subvención tendrá que presentar, antes del pago de la misma, la documentación que acredite dichas circunstancias (Anexo III).*

*- Declaración relativa a otras subvenciones obtenidas o solicitadas para financiar la actividad (Anexo IV).*

***10. Análisis de la documentación y subsanación de errores***

*Una vez obtenida la documentación, los miembros de la Comisión se reunirán para su análisis, y comprobarán que cumple con los requisitos establecidos en el apartado 9º.*

*Si los miembros de la Comisión detectan errores y/o dudas en la documentación presentada, dicha situación se notificará al solicitante para que en un plazo de 5 días hábiles los corrija, subsane y/o aclare. Si transcurrido dicho plazo no ha cumplido con el requerimiento, se entenderá que el interesado a renunciado a la subvención, de conformidad con lo establecido en las Leyes 39/2015 y 40/2015.*

***11. Baremo.***

*I.- Una vez constatado que la documentación presentada cumple los requisitos establecidos en el apartado 9º, los miembros de la Comisión procederán a valorar las solicitudes de subvención presentadas, conforme a los criterios que se señalan a continuación.*

*- La repercusión educativa, deportiva y/o socio-cultural e interés en la localidad de la actividad desarrollada. Se tomará en cuenta el número de participantes. (20%).*

*- Promoción y fomento de, las relaciones equitativas entre mujeres y hombres, el conocimiento e interrelación entre culturas, la sostenibilidad medioambiental, la*



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 16

ingurumenaren iraunkortasuna, desgaitasuna duten edo egoera ahulean dauden pertsonen inklusioa eta sentsibilizazioa, eta euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzea (% 20).

- Autofinantzaketa: autofinantzaketaren ehunekoa gastuekiko (% 20)

- Jarduerak zenbat egun irauten duen. Jarduerek aldizkakotasuna izatea (% 20).

- Bertako kultura sustatzea eta bultzatzea (%10).

- Sormena eta jardueren izaera berritzailea (% 5).

- Euskara erabiltzea (%5).

II.- Baremazio-fasean lortutako puntuazioaren arabera, eskatzaileek dirulaguntza jasoko dute, arau hauen arabera:

Dirulaguntzaren zenbateko osoa interesdunek jasotako puntuazio osoaren artean banatuko da, puntu bakoitzarengatik jaso behar den dirulaguntza kantitatea zehazteko.

Behin hori lortuta, entitate onuradun bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatuko da.

III.- Orokorrean, diruz lagunduko den jarduera bakoitzak ezin izango du 1.000,00 euro baino gehiagoko laguntza jaso.

IV.- Batzordeko kideek aurkeztutako dokumentazioak akatsak dituela uste badute eta/edo haren gainean zalantzak badituzte, horren berri emango zaio eskatzaileari, 5 egun baliodunеko epean zuzendu, konpondu eta/edo argitu ditzan. Behin epe hori igarota errekerimendua bete ez badu, interesdunak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da, 39/2015 eta 40/2015 legeetan ezarritakoarekin bat etorriz.

**12. Ebazpena**

*inclusión y sensibilización hacia las personas con discapacidad o en situación desfavorecida, y la normalización y uso del Euskara (20%)*

*- Autofinanciación: porcentaje de autofinanciación respecto a los gastos (%20)*

*- Número de días de actividad. El que las actividades tengan periodicidad.(20%)*

*- El fomento y la promoción de la cultura autóctona. (10 %)*

*- La creatividad y el carácter innovador de las actividades. (5%)*

*- Uso del euskera. (5%)*

*II.- En función de la puntuación obtenida en la fase de baremación, los solicitantes obtendrán la correspondiente subvención, de la siguiente manera:*

*Se dividirá la cuantía de la subvención entre la puntuación total obtenida por las interesadas, hasta obtener la subvención que corresponde por cada punto.*

*Una vez obtenida dicha cifra, se otorgará la cifra de la subvención que corresponde a cada entidad beneficiaria.*

*III.- Como regla general, ninguna de las actuaciones subvencionadas podrá obtener una ayuda económica que supere los 1.000,00 euros.*

*IV.- Como en los supuestos anteriores, si los miembros de la Comisión detectan errores y/o dudas en la documentación presentada, dicha situación se notificará al solicitante para que en un plazo de 5 días hábiles los corrija, subsane y/o aclare. Si transcurrido dicho plazo no ha cumplido con el requerimiento, se entenderá que el interesado a renunciado a la subvención, de conformidad con lo establecido en las Leyes 39/2015 y 40/2015.*

***12. Resolución***

*Una vez valoradas las solicitudes, la Comisión elevará una propuesta de acuerdo a la Alcaldía.*



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 16

Behin eskaerak ebaluatu ondoren, Batzordeak akordio-proposamena egingo dio Alkatetzari.

Alkatetzak erabakiko du dirulaguntza nola banatu, eta ebazpena eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie.

Ebazpena gehienez ere 2 hilabeteko epean emango da, eskabidea aurkezten denetik zenbatzen hasita. Epe hori igarota ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak bere eskaera baztertu egin dela ulertuko du.

**13. Dirulaguntzaren justifikazioa.-**

I.- Ebazpena eman ondoren, eta, nolanahi ere, 2022ko urriaren 31 baino lehen, dirulaguntza justifikatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte interesdunek:

- Diruz lagundutako programazioa gauzatzeari buruzko behin betiko memoria, eta horren barnean gutxienez deialdiaren 9. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak betetzeari buruzko aipamenak eta jarduera iragartzeko kartela (II. eranskina).
- Balantze ekonomikoa, horretarako prestatutako ereduaren arabera.
- Egindako gastuaren egiaztagiriak eta horien ordainketa-egiaztagiriak.

Diru-laguntzaren ondorioetarako, justifikatutako gastutzat joko dira soilik araudi aplikagarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten fakturak edo dokumentuak.

Justifikatutako gastua esleitutako dirulaguntza baino txikiagoa bada, benetan justifikatutako gastuaren arabera egingo da laguntzaren likidazioa.

Dirulaguntza ordaintzeko eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, eskatzaileak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da.

**14. Entitate onuradunen betebeharrak**

*La Alcaldía resolverá cómo repartir la subvención, y la resolución se notificará a todos los solicitantes.*

*La Resolución se dictará en un plazo máximo de 2 meses desde la presentación de la solicitud. Si transcurrido dicho plazo no se ha dictado resolución, el solicitante entenderá que su solicitud ha sido rechazada.*

***13. Justificación de la subvención.-***

*I.- Una vez otorgada la resolución de concesión, y en todo caso antes del 31 de octubre de 2022, las interesadas deberán presentar la documentación que justifique la subvención:*

- *Memoria definitiva de ejecución de la programación subvencionada, en la que se incluya referencias al menos al cumplimiento de los criterios de valoración establecidos en el artículo 9 y cartel anunciador de la actividad (Anexo II).*
- *Balance económico según modelo elaborado al efecto.*
- *Los justificantes del gasto realizado y su comprobante de pago.*

*Únicamente se considera gasto justificado, a los efectos de la subvención, aquellas facturas o documentos que cumplan con los requisitos establecidos en la normativa aplicable.*

*Si el gasto justificado fuera menor a la subvención asignada, la liquidación de la ayuda se realizará conforme al gasto efectivamente justificado.*

*En el caso de que no se presente la documentación exigida para el abono de la subvención se entenderá que el solicitante ha renunciado a la subvención.*

***14. Obligaciones entidades beneficiarias***

*I.- Las entidades beneficiarias quedarán obligadas a:*

- *Comunicar cualquier eventualidad en el desarrollo de los programas*



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 16

Entitate onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

- Diruz lagundutako programetan edozein gorabehera gertatuz gero, haren berri ematea gertatzen den unean berean. Programan egiten den aldaketa orok kultura-arloaren onarpena lortu beharko du, programa egin aurretik.

- Dirulaguntzaren xede den jardueraren jarraipena.

- Deialdi honetan diruz lagundutako programa egiteko erabiltzea dirulaguntza, ez beste edozertarako.

- Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako beste laguntza, dirulaguntza, dirusarrera edo baliabide batzuen berri ematea Udaleko Kultura Zerbitzuari. Egoera hori jakin bezain laster emanen da horren berri eta, betiere, jasotako dirua zertan erabili den justifikatu baino lehen.

II.- Ekitaldi ekonomiko jakin baten kargura laguntza bat emateak ez du esan nahi hurrengo urteetan dirulaguntzak emateko eskubideak eskuratuko direnik.

III.- Dirulaguntza esleitu ondotik, honi uko egin ezean, onartutzat joko da eta emandako kopurua onartzen dela ulertuko da. Diferentzia eskatzaileak ordainduko du.

**15.- Dirulaguntzaren ordainketa.-**

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, ebazpena eman ondoren. Ordainketa eskatzaileak adierazitako kontu korrontera egindako transferentzia baten bidez egingo da.

**16.-. Publizitatea.**

Onuradunak iragarriko du egindako jarduerak Etxarri Aranazko Udalaren dirulaguntza jaso duela, jarraian ezartzen den moduan.

*subvencionados en el momento que se produjera. Cualquier modificación o cambio en el programa deberá obtener la aprobación del área de cultura con anterioridad a su celebración.*

*- Seguimiento de la actividad objeto de subvención.*

*- Destinar la ayuda exclusivamente a la realización del programa de actividades subvencionado dentro de esta convocatoria.*

*- Comunicar al Servicio municipal de Cultura la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación de los fondos percibidos.*

*II.- La concesión de una ayuda con cargo a un ejercicio económico determinado no significa la adquisición de derechos para la concesión de subvenciones en años sucesivos.*

*III.- Concedida la ayuda se entenderá aceptada si no hay renuncia expresa a la misma, de lo contrario se entenderá que se acepta la cuantía concedida y el/la solicitante se comprometerá a desarrollar la actividad proyectada.*

***15.- Abono de la subvención.-***

*La subvención se abonará en un solo pago, después de que se dicte resolución. El pago se hará a través de una transferencia a la cuenta corriente que haya indicado el solicitante.*

***16.- Publicidad.-***

*El beneficiario publicitará que la actividad desarrollada ha obtenido la subvención del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz, de la forma que se establece a continuación:*



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 16

Horrez gain, Udalak dirulaguntza jasoko duten erakundeen zerrenda argitaratuko du, bere webgunean.

**17. Dirulaguntzen bateragarritasuna.**

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako ematen dituen dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

**18. Betebeharrak ez betetzea.**

I. Deialdi honetako oinarrietan ezarritakoa ez betetzeak, datuak faltsutzeak, edo, dirulaguntza zein xedetarako eman zen, horien funtsezko aldaketak, dirulaguntza galtzea ekarriko du, eta jaso diren zenbatekoak itzuli beharra ere bai. Halaber, xede berarekin edo bertsuarekin gero beste eskaririk egiten bada, ez da onartuko.

II. Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzaren bat betetzen ez bada, Administrazioak ahalmena izanen du laguntza kentzeko

**19. Datuen babesa**

Bat etorriz 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 13. artikuluarekin, izangaiei honako honen berri ematen zaie:

- Etxarri Aranazko Udala da parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.

- Etxarri Aranazko kultur, kirol eta

*Además, el Ayuntamiento publicará el listado de entidades beneficiarias de la subvención en su página web.*

***17. Compatibilidad con otras subvenciones.-***

*La presente subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados.*

***18. Incumplimientos.***

*I. El incumplimiento de lo establecido en las bases de esta convocatoria, el falseamiento de datos o la modificación sustancial de los fines en razón de los cuales se concedió la subvención, dará lugar a la perdida de la misma, a la obligación de reintegrar las cantidades que hubiesen sido percibidas, y supondrá la inadmisión de las posteriores solicitudes de subvención con idéntica o similar finalidad.*

*II. El incumplimiento de alguna de las obligaciones previstas en estas bases supondrá la anulación de la ayuda.*

***19. Protección de datos***

*De conformidad con lo establecido en el art. 13 del Reglamento 2016/679 (RGPD) se informa de que:*

*- El responsable del tratamiento de los datos personales facilitados por los participantes es el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz.*

*- La finalidad el tratamiento es la concesión de subvenciones a entidades culturales, deportivas y*



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 16

gizarte erakundeei dirulaguntzak ematea da tratamenduaren helburua.

- Oinarri juridikoa 6.1.e) artikuluan ezarritakoa da, honako hau, alegia: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzeko.

- Datuak biltzen diren helburua betetzeko eta deialdiaren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (Nafarroako toki entitateetako dokumentuak ebaluatzeko eta ezabatzeko jarraibideak).

- Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), baita haien argitaratzea ere, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat.

- Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak erabil ditzakete udal-bulegoetan.

**20. Araudi erregulatzailea.**

Deialdi honetan jasota ez dagoen orotan aplikatzekoak izango dira uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta gainerako arauak.

**19. Errekurtsoak.**

Administrazio-bidea amaitzen duen deialdi horren aurka, honako errekurtso hauetako bat jarri ahal izango da, aukeran:

-Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, BI HILABETEZ, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik

*sociales de Etxarri Aranatz.*

*- La base jurídica es la obligación art. 6.1.e): el tratamiento es necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.*

*- Los datos se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recogen y para determinar las posibles responsabilidades que puedan derivar de la convocatoria y del tratamiento de los datos. Será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación (instrucciones para la evaluación y eliminación de documentos de las Entidades Locales de Navarra).*

*- Los datos se comunicarán en los supuestos legalmente previstos (RDL 5/2015), incluida la publicación de acuerdo con el art. 19.2.f) de la Ley Foral 5/2018.*

*- Los titulares pueden ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición y portabilidad en las oficinas municipales.*

***20. Normativa reguladora.***

*En lo no previsto en ésta convocatoria la misma se rige por la ley Foral 6/1990, de 2 de julio y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y resto de normativa correspondiente.*

***19. Recursos***

*Contra dicha convocatoria que pone fin a la vía administrativa, cabrá interponer optativamente uno de los siguientes recursos:*

*-Recurso Contencioso-Administrativo ante el órgano competente de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo de Navarra en el plazo de DOS MESES contados desde el día siguiente al de notificación de la resolución.*

*-Recurso de Alzada ante el Tribunal*



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 16

aitzina.

-Gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, ebazpen hau jakinarazi eta hilabeteko epean.

- Berraztertzeko helegitea, egintzaren organo egile beraren aurrean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabete bateko epean.

*Administrativo de Navarra en el plazo de un mes siguiente a la fecha de notificación de esta resolución.*

*-Recurso de reposición ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución.*

Etxarri Aranatzen, sinadura elektronikoaren datan
*En ETxarri Aranatz, a la fecha de la firma electrónica*

Silvia Marañon Chasco
ALKATEA/La Alcaldesa

**III ERANSKINA**
**AITORPEN ARDURATSUNA**



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 16

## KULTUR, KIROL ETA JENDARTE ENTITATEEI DIRULAGUNTZA DEIALDIA
## 2021/2022. IKASTURTEA

**ESKATZAILEAREN DATUAK:**

**Izen abizenak:** **NAN:**

**Entitatearen izena:**

**Helbidea:** **Telefonoa:**

**Posta elektronikoa:**

**AITORTZEN DUT:**

**Kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntza deialdia emateko oinarrien 6. Puntuan eta dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 9ko 11/2005. Foru Legean ezarritako baldintzak betez, enitate honek zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta ditudala**

**Etxarri Aranatzen, ___________________________________**

*(sinadura eta zigilua)*

DATUEN BABESA: 2016/679. Erregelamenduaren (RGPD) 13. Artikuluan zehaztutakoa betez, ondoko informazioa adierazten da:

- Parte hartzen duten pertsonek emandako datuak tratatzeko arduraduna Etxarri Aranazko Udala da.
- Tratamenduaren helburua kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntza bat ematea da.
- Oinarri juridikoa 6.1.e). artikulukoa da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoarengatik edo tratamenduaren arduradunak egotzita dituen botere publikoak erabiltzeagatik.
- Jasotako datuak helburua bete arte gordeko dira, edo datuen tratamenduarengatik eta deialdiagatik sortu daitezken erantzunkizunei erantzun ahal izan arte. Dokumentazioaren eta artxiboen araudian ezarritakoa aplikatuko da (Nafarroako Toki Entitateen dokumentuak eliminatu eta ebaluatzeko instrukzioak).
- Datuak legeak ezartzen dituen kasuetan jakinaraziko dira (RDL 5/2015), baita 5/2018. Foru Legearen 19.2.f). artikuluak aurreikusten dituen kasuetan ere.
- Titularrak udal bulegoetan haien sarbide, zuzenketa, ezabapen, mugaketa eta portabilitate eskubideak erabili ahal izango dituzte.



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 16

# IV ERANSKINA
# BESTE DIRULAGUNTZAK

**KULTUR, KIROL ETA JENDARTE ENTITATEEI DIRULAGUNTZA DEIALDIA**
**2021/2022. IKASTURTEA**

**ESKATZAILEAREN DATUAK:**

**Izen abizenak:** **NAN:**

**Entitatearen izena:**

**Helbidea:**

**Posta kodea:** **Telefonoa:**

**Posta elektronikoa:**

**AITORTZEN DUT:**

**Entitate honek ondoan zehazten diren dirulaguntzak jaso dituela, dirulaguntza honen bidez finantzatuko den jarduera/ekintza finantzatzeko:**

| ENTITATEA | DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |

**Etxarri Aranatzen,** ____________________________________

*(sinadura eta zigilua)*

DATUEN BABESA: 2016/679. Erregelamenduaren (RGPD) 13. Artikuluan zehaztutakoa betez, ondoko informazioa adierazten da:

- Parte hartzen duten pertsonek emandako datuak tratatzeko arduraduna Etxarri Aranazko Udala da.
- Tratamenduaren helburua kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntza bat ematea da.
- Oinarri juridikoa 6.1.e). artikulukoa da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoarengatik edo tratamenduaren arduradunak egotzita dituen botere publikoak erabiltzeagatik.
- Jasotako datuak helburua bete arte gordeko dira, edo datuen tratamenduarengatik eta deialdiagatik sortu daitezken erantzunkizunei erantzun ahal izan arte. Dokumentazioaren eta artxiboen araudian ezarritakoa aplikatuko da (Nafarroako Toki Entitateen dokumentuak eliminatu eta ebaluatzeko instrukzioak).
- Datuak legeak ezartzen dituen kasuetan jakinaraziko dira (RDL 5/2015), baita 5/2018. Foru Legearen 19.2.f). artikuluak aurreikusten dituen kasuetan ere.



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 16

- Titularrak udal bulegoetan haien sarbide, zuzenketa, ezabapen, mugaketa eta portabilitate eskubideak erabili ahal izango dituzte.

## ANEXO III. ERANSKINA

## AITORPEN ARDURATSUNA/ *DECLARACIÓN RESPONSABLE*

**KULTUR, KIROL ETA JENDARTE ENTITATEEI DIRULAGUNTZA DEIALDIA**
**2021/2022. IKASTURTEA**
***SUBVENCIÓN A ENTIDADES CULTURALES, DEPORTIVAS Y SOCIALES***
***CURSO 2020/2021***

**ESKATZAILEAREN DATUAK:**
*DATOS DEL SOLICITANTE*

**Izen abizenak:**
*Nombre y apellidos:*

**NAN:**
*DNI:*

**Entitatearen izena:**
*Nombre de la entidad:*

**Helbidea:**
*Dirección:*

**Telefonoa:**
*Teléfono:*

**Posta elektronikoa:**
*Correo electrónico:*

**AITORTZEN DUT:**
*DECLARO:*

**Kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntza deialdia emateko oinarrien 6. Puntuan eta dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 9ko 11/2005. Foru Legean ezarritako baldintzak betez, enitate honek zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta ditudala**
*De conformidad con lo establecido en el punto 6º de la convocatoria y en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones, esta entidad está al corriente de sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.*

**Etxarri Aranatzen, ______________________________________**
*En Etxarri Aranatz, a*

*(sinadura eta zigilua/firma y sello)*

PROTECCIÓN DE DATOS: De conformidad con lo establecido en el art. 13 del Reglamento 2016/679 (RGPD) se informa de que:
- El responsable del tratamiento de los datos personales facilitados por los participantes es el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz.
- La finalidad el tratamiento es la concesión de subvenciones a entidades culturales, deportivas y sociales.
- La base jurídica es la obligación art. 6.1.e): el tratamiento es necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.
- Los datos se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recogen y para determinar las posibles responsabilidades que puedan derivar de la convocatoria y del



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 16

tratamiento de los datos. Será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación (instrucciones para la evaluación y eliminación de documentos de las Entidades Locales de Navarra).
- Los datos se comunicarán en los supuestos legalmente previstos (RDL 5/2015), incluida la publicación de acuerdo con el art. 19.2.f) de la Ley Foral 5/2018.
- Los titulares pueden ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición y portabilidad en las oficinas municipales.

## ANEXO IV. ERANSKINA
## BESTE DIRULAGUNTZAK/*OTRAS AYUDAS*

**KULTUR, KIROL ETA JENDARTE ENTITATEEI DIRULAGUNTZA DEIALDIA**
**2021/2022. IKASTURTEA**
***SUBVENCIÓN A ENTIDADES CULTURALES, DEPORTIVAS Y SOCIALES***
***CURSO 2020/21***

**ESKATZAILEAREN DATUAK:**
*DATOS DEL SOLICITANTE*

**Izen abizenak:** *Nombre y apellidos:*

**NAN:** *DNI:*

**Entitatearen izena:**
*Nombre de la entidad:*

**Helbidea:** *Dirección:*

**Telefonoa:** *Teléfono:*

**Posta elektronikoa:**
*Correo electrónico:*

**AITORTZEN DUT:**
*DECLARO:*

**Entitate honek ondoan zehazten diren dirulaguntzak jaso dituela, dirulaguntza honen bidez finantzatuko den jarduera/ekintza finantzatzeko:**
*Esta entidad ha recibido las subvenciones que se detallan a continuación para financiar la misma actividad/acción objeto de la presente convocatoria:*

| **ENTITATEA** *OTORGANTE* | **DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN IZENA** *NOMBRE DE LA CONVOCATORIA* | **CUANTÍA** *ZENBATEKOA* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 16

| |
|---|
| **En Etxarri Aranatz, ________________________________________**<br><br>*(sinadura eta zigilua/firma y sello)* |

PROTECCIÓN DE DATOS: De conformidad con lo establecido en el art. 13 del Reglamento 2016/679 (RGPD) se informa de que:

- El responsable del tratamiento de los datos personales facilitados por los participantes es el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz.
- La finalidad el tratamiento es la concesión de subvenciones a entidades culturales, deportivas y sociales.
- La base jurídica es la obligación art. 6.1.e): el tratamiento es necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.
- Los datos se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recogen y para determinar las posibles responsabilidades que puedan derivar de la convocatoria y del tratamiento de los datos. Será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación (instrucciones para la evaluación y eliminación de documentos de las Entidades Locales de Navarra).
- Los datos se comunicarán en los supuestos legalmente previstos (RDL 5/2015), incluida la publicación de acuerdo con el art. 19.2.f) de la Ley Foral 5/2018.
- Los titulares pueden ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición y portabilidad en las oficinas municipales.
- Titularrak udal bulegoetan haien sarbide, zuzenketa, ezabapen, mugaketa eta portabilitate eskubideak erabili ahal izango dituzte.



Baliozkotze Kod.: 9E5QKMDSSNMG5DLQJMGAPRKPN | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 16